

Immigracioaren auzia, Mendebaldetik ikusita

IÑAKI ORRADRE MUÑOZ :: 10/04/2025

JARDUN Koordinadorako kidea den Iñaki Orradre Muñozek idatzitako iritzi artikulua.

[Euskaraz]

Immigracioaren auzia, Mendebaldetik ikusita

Bada gai bat azken hilabeteetan Euskal Herriko testuinguru politikoan bolo-bolo dabilena. Kontu koiunturala izatetik haratago, badirudi luze joko duen eztabaidea pizten ari dela, eta horren aurrean, hainbat argipen egitea komeni da. Antolakunde politikook zintzotasun eta erantzukizun osoz heldu beharreko afera dugu immigratioarena. Zentzu horretan, tamainako erronka baten aurrean militante politikooi sortzen zaizkigun eginbeharrok zehazten laguntzeko helburua dute lerro hauek.

Immigracioaren afera testuinguruan kokatzeko, ekoizpen modu kapitalistaren bilakaerari begiratu behar zaio halabeharrez. Ezin da immigratioaz hitz egin, immigratioa sortzen duen munduaren banaketa imperialistaz mintzatu gabe. Gure bizi-baldintzak, zentro imperialistako langile gisa, herri periferikoen gainesplotazioan oinarritzen dira. Mendebaldeko herrialdeen garapena Hegoalde Globalaren azpigarapenaren kontura lortu da. Garapen desorekatu horrek zentro eta periferia imperialistako langileen bizi-baldintzen polarizazioa eragin du. Gauzak horrela, periferian miseria existentzial bat sortu da, neurri handi batean zentro imperialistako herrialdeetara migratzera bultzarazten dituena.

Horren aurrean, afera honi heltzeko hainbat planteamendu garatzen ari dira Euskal Herri mailan, posizio politiko ezberdinatik abiatzen direnak eta, hortaz, irtenbide politiko kontrajarriak mahaigaineratzen dituztenak. Gizarteko sektore eta tendentzia politiko oso ezberdinatik, sarritan, auzia "immigratioak sortzen dituen arazoetan" kokatzen da. Baino zentro imperialistatik ez da batere zintzoa afera horrela planteatzea.

Lehenik eta behin, arrazoi etiko batengatik. Hainbatetan aipatzen diren arazo horiek (biolentzia, delinkuentzia, etab.), esajeratuak izateaz gain, ez ditu immigratioak sortzen, bizi-baldintza miserable batzuek baizik, eta, hortaz, jatorriaz gaindi, etorkinek zein bertakoek burutu ditzakete. Gainera, hipokritena da gu, Mendebaldeko langileok, munduaren banaketa imperialistari esker langile etorkinek beren jatorrizko herrialdeetan pairatzen dituzten baldintza horietatik, zeharka bada ere, etekina ateratzen dugula, asumitu nahi ala ez. Orain arte ezikusiarena egin dugun arren, miseria hori eta bertatik eratorritako gatazka sozialak baziren eta badira egunerokoan periferian. Hemen, ordea, miseria horren zati txiki bat ikustean asaldatzen gara. Izan ere, orain arte ez zen gure arazoa, antza.

Bigarrenik, arrazoi politiko batengatik. Immigratioak sortzen dituen arazoez hitz egiteak arazoa migratzaileengan kokatzea eragiten du, klase zapaltzailea periferiako herrien miseriaren eta, beraz, migratio prozesuen eta langile-klase osoaren bizi-baldintzen kaskartzearen erantzule gisa kokatu beharrean. Immigratioak sortzen dituen arazoei buruz hitz egitea biolentzia gure begi bistatik kentzen eta ezkutatzen saiatzeko ahalegin makurra

izan daiteke. Izan ere, jakina da, ikusiko ez genukeen arren, biolentzia horrek periferian existitzen jarraituko lukeela. Hau da, ez dio aferaren erroari heltzen eta, horrenbestez, jarrera erreakzionarioak bultzatzen ditza. Immigratioa “gure bakearen eta ongizatearen” aurkako eraso gisa planteatzea eragin dezake. Baino bake eta ongizate hori, ezerezetik sortzetik urrun, kapitalismoaren bilakaera historikotik abiatzen da, eta, nahitaez, txanponaren beste aldean sortzen den miseriari esker eraikia da, nahiz eta sarritan beste aldera begiratzen tematzen garen.

Bestalde, bada deriba larri bat, itxuraz postura abertzaleetik planteatuta, zinez txobinista eta erreakzionarioa dena. Balizko posizio abertzaleetik, etorkinak jotzen dira Euskal Herriaren asimilazio nazionalean sakontzearen erruduntzat eta, horrela, estatuen gainegiturazko aparatu indartzea aldarrikatzen da migrazio-legeak gogortzeko proposamenekin, mugen blindajearekin eta abarrekin. Hala ere, Euskal Herrian bizitzeko euskara beharrezkoa ez den bitartean, espainola eta frantsesa derrigor ezagutu behar izatea ez da etorkinen errua. Langileon kontzientzia nazionalak beherakada itzela jasan izana ez da etorkinen errua. Euskararen eta kontzientzia nazionalaren galeraren erantzukizuna etorkinei leporatzea etsaiaz nahastea da. Euskal Herriaren asimilazio nazionalaren, euskararen kontrako zapalkuntzaren eta honek bizi duen diglosia-egoeraren errudun bakarrak espainiar eta frantziar estatuak dira, euskal burgesiaren kolaborazio eta konplizitatearekin. Estatu zapaltaileek migrazio prozesuak beren estrategiaren mesedetan bultzatu nahi izateak ezin gaitu, inondik inora, etorkinak ezeren erantzuletzat jotzera eraman. Joera honekin, azken finean, borroka iraultzailea berpizteko potentzialtasuna duen langileriaren zati bat seinalatu eta benetako etsaiaren botere mekanismoak indartzen dira.

Horrez gain, planteatu beharra dago zer nolako gailentasun moral eta zintzotasun internazionalistarekin esango diogun pertsona migratzaile bati bere etorrera eragoztekoo oztopo gehiago sortea defendatzen ari garela, gure burgesia denean migratzera behartu duen miseria sortu duena. Hori egitea etorkina guztiz salduta uztea da, erantzukizunik ez duenari ondorioak pairaraztea. Hau internazionalismo proletarioaren antipodetan kokatzea litzateke. Migratzeko prozesua ihes egitera bultzatzen dituzten miseria baldintzak sortu ondoren gertatzen da. Beraz, egoera horretan, ez da migratzailea gelditu behar, gerra imperialista baizik. Horrek ez digu inolako kontraesanik sortu behar, nahiz eta jakin kapitalak migratzaileak importatzeko interesak izan badituela. Azken finean, periferiako herrialdeetan triskantza eraginda dagoenean, ezin dugu beste alde batera begiratu. Gainera, ez dagokigu langile klaseari estatu kapitalista eta zapaltaileak kudeatzea, are gutxiago hauek indartzea, aurkakoa baizik.

Era berean, beste muturrean, postura progresistetik abiatzen diren planteamendu idealistak kokatzen dira. Hauetan immigratioa normalizatzen da, ausazko zerbaitek izango balitz bezala. Hori dela eta, fenomeno honen kausei heldu ordez, soilik ondorioei erreparatzen zaie. Hegozteko Globaleko herrialdeen kontrako eraso imperialisten aurrean isilik gelditzen dira, edo kasu okerrenetan, imperialismoaren propaganda birproduzitzen dute. Horrela, immigratio prozesuak idealizatzen dituzte, beren jatorriaz hitz egin gabe. Dena den, migrazio prozesuak ez dira naturalak, etorkinek ez baitute beren sorterria ausaz eta oro har gogo onez uzten. Prozesu hauen atzean dagoen egiturazko biolentzia imperialista guztia ezkutatzen dute, eta ez dute egoera iraultzeko inolako planteamendurik mahaigaineratzen. Azalean geratuta eta bakarrik ondorioei erreparatzean, egoera

betikotzea sustatzen dute zeharka.

Horren aurrean, kontrara, auziaren kausara jo eta migratzaleek eta, beraz, langile-klase osoak pairatzen dituen arazoez mintzatu behar gara. Kapitalak munduko zentro-periferia banaketa imperialista mantentzeko duen interesaz mintzatu behar gara, eskulan etorkina lortzen jarraitzea bermatzen diona. Migrazioak eta mugak periferiako herrialdeetako eskulana diziplinatu, biolentatu eta debaluatzeko betetzen duten funtzioaz mintzatu behar gara. Langile migratzaleak langile klase osoaren soldatak merketzeko presio mekanismo gisa erabiliak direla salatu beharra dago, klase barneko arrakalak sortzeko helburuarekin. Hau da, klase etsaia da seinalatu behar dena, ez kidea.

Zentzu horretan, eta Mendebaldeko langile gisa, argi izan behar dugu bertako eta langile migrataileen batasuna lortzeko gainditu beharreko oztoporik handiena munduaren banaketa imperialistak sortzen duen zatiketa dela, zentro eta periferiako langileak posizio kualitatibo desberdinatan mantentzen dituena.

Hortaz, immigrazioaren afera soilik Mendebaldeko herrialdeei nola eragiten digun aztertu beharrean, langile klase osoari nola eragiten dion aztertu behar dugu, batez ere periferiako herriei eta langile etorkinei, horiek baitira gehien pairatzen dutenak. Zentra gaitezen klase menderatzaileak langileen artean zatiketak sortzeko abian jartzen dituen mekanismoei aurre egiten.

Mundua koordenada multipolarretara aldatzen ari da, eta, horrekin batera, Mendebaldeko herrialdeen metaketarako oinarri materiala murrizten ari da. Hori zentro imperialistako zenbait klase-estraturen bizimoduaren berehalako okertzea ekartzen ari da, eta, halaber, joera erreakzionarioen gorakada gero eta nabarmenagoa da. Beraz militante politikoon erantzukizunak erabatekoa izan behar du afera honetan. Planteamendu kriminalizatzaile, idealista eta erreakzionarioek parez pare izan behar gaituzte. Mendebaldea banaketa imperialistaren erantzule eta onuradun den bitartean, immigrazioa sorrarazten duten kausak dira seinalatu beharrekoak.

Horren guztiaren aurrean, gure eginbeharrik zehaztea ezinbestekoa da. Epe laburrean, alde batetik, plano ideologikoan gure postura findu eta garatuz, erreakzioa elika dezaketen marko diskurtsiboa erosi gabe. Bestalde, arrazakeriaren aurkako borroka indartuz, ideologizazioaren zein masa lanketen bidez eta areagotzen ari diren joera erreakzionarioak konfrontatzuz. Betiere epe luzera argi izanda, zentro imperialistako herrietatik immigrazioaren auziari egin diezaiokegun ekarpenik handiena gure herrialdeetako klase menderatzailearen eta honek sustatutako gerra imperialisten aurka borrokatzetan jarraitzea dela, periferiako herriekiko dugun betebehar historiko gisa.

Klase zapaltzaileak zatiturik nahi gaitu, batasunetik erantzun diezaiogun!

[Castellano]

La cuestión de la inmigración vista desde Occidente

Hay un tema que en los últimos meses está en boga en el contexto político de Euskal Herria. Más allá de ser una cuestión coyuntural, parece que se está suscitando un debate que va a

perdurar en el tiempo y ante el que conviene hacer varias aclaraciones. Las organizaciones políticas tenemos que abordar la cuestión de la inmigración con la más absoluta responsabilidad. A tal efecto, estas líneas tienen por objetivo ayudar a definir los deberes y responsabilidades que nos surgen a los militantes políticos ante un reto de tal envergadura.

Para contextualizar la cuestión de la inmigración, es preciso observar inevitablemente la evolución del modo de producción capitalista. No se puede hablar de inmigración sin hablar del reparto imperialista del mundo que la genera. Nuestras condiciones de existencia, como trabajadores del centro imperialista, se basan en la sobreexplotación de los pueblos periféricos. El desarrollo de los países occidentales se ha obtenido a costa del subdesarrollo del Sur Global. Este desarrollo desigual ha provocado una polarización de las condiciones de vida de los trabajadores del centro y la periferia imperialista. Así, en la periferia se ha generado una miseria existencial que les empuja en gran medida a emigrar a los países del centro imperialista.

Frente a ello, a nivel de Euskal Herria, se están desarrollando distintos planteamientos para abordar esta cuestión, partiendo estas de posiciones políticas diferentes y, por tanto, planteando soluciones políticas contrapuestas. Desde sectores y tendencias políticas muy diversas de la sociedad, a menudo la cuestión se plantea desde el prisma de "los problemas que genera la inmigración". Pero plantear así esta cuestión, desde el centro imperialista, no es nada honesto.

En primer lugar, por una razón ética. Estos problemas tan mencionados hasta la saciedad (violencia, delincuencia, etc.), además de exagerados, no son originados por la inmigración, sino por unas condiciones de vida miserables. Es por ello que estas pueden ser llevadas a cabo tanto por migrantes como por nativos, independientemente del origen. Lo más hipócrita además, es que los trabajadores occidentales, gracias al reparto imperialista del mundo, nos beneficiamos indirectamente de las condiciones que los trabajadores migrantes padecen en sus países de origen, queramos asumirlo o no. Por mucho que hasta ahora hayamos mirado a otro lado, esa miseria y los conflictos sociales derivados de la misma ya existían y existen a diario en la periferia. Aquí, sin embargo, nos perturbamos al ver nada más que una pequeña parte de toda esa miseria. Una miseria que hasta ahora no era nuestro problema, al parecer.

En segundo lugar, por una razón política. Hablar de los problemas que genera la inmigración hace que el problema se sitúe en los migrantes, en lugar de señalar a la clase explotadora como el responsable de la miseria de los pueblos de la periferia y, por tanto, de los procesos migratorios y del empeoramiento de las condiciones de vida de toda la clase trabajadora en su conjunto. Hablar de los problemas que genera la inmigración puede ser un perverso intento que trata de desterrar la violencia de nuestras vidas y ocultarla. Porque es evidente que aunque no lo viéramos, esa violencia seguiría existiendo en la periferia. Es decir, no aborda la raíz de la cuestión y, por tanto, puede favorecer actitudes reaccionarias. Puede provocar que la inmigración se plantee como un ataque a "nuestra paz y bienestar". Una paz y bienestar que, lejos de nacer de la nada, parten de la evolución histórica del capitalismo y son construidas necesariamente gracias a la miseria generada en la periferia, aunque a menudo nos resistamos a verlo.

Por otra parte, existe una deriva grave, aparentemente planteada desde posturas abertzales, que en realidad resulta chovinista y reaccionaria. Desde esas posiciones en apariencia abertzales, se considera a los inmigrantes culpables de profundizar en la asimilación nacional de Euskal Herria, y así reivindican el fortalecimiento del aparato superestructural de los Estados con propuestas de endurecimiento de las leyes migratorias, blindaje de fronteras, etc. Cabe recordar pues, que mientras el euskera no sea necesario para vivir en Euskal Herria, el conocimiento obligatorio del español y del francés no es ni será culpa de los inmigrantes. Que la conciencia nacional de los trabajadores haya sufrido un enorme descenso no es culpa de los inmigrantes. Responsabilizar a los inmigrantes de la pérdida del euskera y de la conciencia nacional es confundirnos de enemigo. Los únicos culpables de la asimilación nacional de Euskal Herria, de la opresión contra el euskera y de la situación de diglosia que vive nuestro idioma son los Estados español y francés, con la colaboración y complicidad de la burguesía vasca. El hecho de que los Estados opresores tengan interés en impulsar los procesos migratorios en beneficio de su estrategia no nos puede llevar en modo alguno a considerar responsables de nada a los inmigrantes. Con esta tendencia, a fin de cuentas, se señala a parte de la clase trabajadora que potencialmente puede ayudar a reavivar la lucha revolucionaria y se refuerzan los mecanismos de poder del verdadero enemigo.

Además, hay que plantearse con qué superioridad moral y honestidad internacionalista vamos a decir que estamos defendiendo la creación de más obstáculos para impedir la llegada de personas migrantes, cuando es nuestra burguesía la que ha creado la miseria que les ha obligado a migrar. Hacerlo es dejarlos vendidos, hacer sufrir las consecuencias a quien no tiene responsabilidad. Esto sería situarse en las antípodas del internacionalismo proletario. El proceso migratorio se produce una vez creadas las condiciones de miseria que les empujan a huir. Por tanto, en estas circunstancias, no hay que parar al migrante, sino la guerra imperialista. Ello no debe generarnos contradicción alguna, aun siendo conscientes del interés del capital en importar migrantes. Al fin y al cabo, cuando los países de la periferia han sido destruidos, no podemos desentendernos de quien sufre las consecuencias. Además, a la clase trabajadora no nos corresponde gestionar el estado capitalista, y menos aún fortalecerlo, sino todo lo contrario.

De la misma manera, en el otro extremo, se sitúan los planteamientos idealistas que parten de posturas progresistas. En ellos se normaliza la inmigración, como si fuera algo casual. De ahí que, en vez de abordar las causas de este fenómeno, se fijen únicamente en sus consecuencias, guardando silencio ante los ataques imperialistas contra los países del Sur Global, o en los peores casos, reproduciendo la propaganda del imperialismo. Así, idealizan los procesos migratorios sin hablar de sus orígenes. Sin embargo, los procesos migratorios no son naturales, ya que los inmigrantes no abandonan su país de origen por casualidad y generalmente por voluntad propia. De esta manera, ocultan toda la violencia estructural imperialista que hay detrás de estos procesos y no plantean solución alguna para revertir la situación. Quedándose en lo superficial y prestando atención únicamente a las consecuencias, cronifican dicha situación.

Frente a ello, por el contrario, debemos remitirnos a la causa de la cuestión y hablar de los problemas que sufren los migrantes y, por tanto, toda la clase obrera en su conjunto. Debemos hablar de cómo al capital le es imprescindible mantener la división imperialista

centro-periferia, la cual le garantiza seguir obteniendo mano de obra migrante. Debemos hablar de la función que la migración y las fronteras desempeñan para disciplinar, violentar y devaluar la mano de obra proveniente de los países periféricos. Es necesario denunciar que el proletariado migrante es utilizado para presionar a la baja el salario de la clase trabajadora en general, con el fin de crear divisiones internas a nivel de clase. Es decir, es la clase enemiga a la que hay que señalar, no al compañero.

En este sentido, y como trabajadores occidentales, debemos tener claro que el mayor obstáculo a superar para lograr la unión de los trabajadores nativos y migrantes es la brecha que genera el reparto imperialista del mundo, que mantiene a los trabajadores del centro y de la periferia en posiciones cualitativas distintas.

Por tanto, en lugar de analizar cómo nos afecta el tema de la inmigración exclusivamente a los países occidentales, debemos analizar cómo afecta a la clase trabajadora en su conjunto, especialmente a los pueblos de la periferia y al proletariado migrante, que son quienes más la sufren. Centrémonos en combatir los mecanismos que la clase dominante pone en marcha para crear divisiones entre los trabajadores.

El mundo está cambiando a coordenadas multipolares y, con ello, se está reduciendo la base material para la acumulación en los países occidentales. Esto está suponiendo un deterioro inmediato de la forma de vida de algunos estratos de clase del centro imperialista, que está derivando en un incremento de tendencias reaccionarias cada vez más evidente. Por lo tanto, la responsabilidad como militantes políticos debe ser máxima al respecto. Debemos hacer frente a los planteamientos criminalizadores, idealistas y reaccionarios. Mientras que Occidente sea responsable y beneficiario del reparto imperialista, las causas que originan la inmigración son las que deben ser señaladas.

Ante todo esto, es imprescindible tener claro cuáles son nuestras tareas. A corto plazo, debemos afinar y desarrollar nuestra posición en el plano ideológico, sin caer en marcos discursivos que puedan alimentar la reacción. A su vez, debemos reforzar la lucha contra el racismo. Por una parte, tanto a través de la lucha ideológica como del trabajo de masas y por otra, confrontando las tendencias reaccionarias en auge. Sin embargo, no podemos olvidar que a largo plazo la mayor contribución que podemos hacer desde los pueblos del centro imperialista es seguir luchando contra la clase dominante de nuestros países y las guerras imperialistas promovidas por esta, pues es nuestro deber histórico con los pueblos de la periferia.

¡La clase dominante nos quiere divididos, respondamos desde la unidad!

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-immigrazioaren-azuzia-mendebaldetik>